# B

BARREN

ELGOIBAR - 664. zenb. - XVI urtea - 2008-08-23



## Jaiak bizi (:

San Bartolomeak 2008


Jai zoriontsuak!
EAJ
PNV

# MERKATU PLAZA

## *Uste duzuna baino gehiago!*



**Arantxa eta Marian**
FRUTADENDA



**MARI** HARATEGIA



**TXILARRE** BARAZKIAK
Elikagai ekologikoak



**M. Angeles**
FRUTADENDA



**Amaia** FRUTADENDA



**ZABALA** FRUTADENDA



**PAGOA** LORADENDA



**Zabala**
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA

*San Bartolome jai zoriontsuak!*


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !
ZEZENBIDE AUTOESKOLA
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
LEKUALDAKETA
San Frantzisko, 52 behea
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak


GOKI ERREFORMAK S.L.
Honako Instalazioetan baimendutako enpresa:
Klimatizazioa
Berokuntza
Gasa
Iturgintza
Erregai likidoak (Gasoleoa)
EGUZKI - ENERGIA
ERAKUSKETA
Bainugelak
Ateak
Lurrak
OBRAK ETA PROIEKTUAK
Aroztegia
Fatxadak
Teilatuak
goki@gokierreformak.com · www.gokierreformak.net
Olaso pol., 15-68 Pb. ELGOIBAR • Tel. 943 74 28 80 / 943 74 42 23 / 943 74 46 40 - Faxa 943 74 45 87

# Musika, jaietarako erreminta

Urtetan atzera joan eta oraindik daukat gogoan, amamari deitu eta aparatua ipinita leiho alboan nola entzuten genituen oporretan, geunden tokian geundela, San Bartolome bezperako kanpai hotsak telefonoan.Urtetan aurrera eta telefono ertzetik elizako arkupera. Han ospatzen dut orain lagunekin jaien hasiera. Norbait kanpoan bada guk deitzen diogu, gainera. Jaien burrundara iritsi dadin urrutiko edozein bazterrera. Txapligoen ostean, txaranga. Bonboa dinbi eta danba eta txindaten eztanda. Tronpeta, klarinete, tronboi… elkarri hartu ezinik txanda. Jai giroa non Mausitxa han da.

Musika, jaietan gurera ezinbesteko bisita. Dantzaldia Plaza Handian eta jendea agarrauan zein soltean animatuko balitz, oso polita. Txosnetan doinu gogorragoei segika, asko buruari gora eta behera eraginez, gazte batzuen erritmoa hori baita.Nolako soinua, halako dantza. Eta dantzek hartu ohi dute San Bartolome egunez Foruen Plaza. Solemnea bezain ikusgarria Haritz taldekoen pausoekin jaiek hartzen duten traza.

Zuri eta gorri dantzarien kolorea eta margo horiek aldendu gabe egunez aldatuko dugu, ordea. Niretzat Txiki Eguna dudatik gabe, hobea.Zezena, zeinek esango zidan egun batean nigana hain azkar etorriko zena. Ordutik argi dut barraren atzean ikusten egongo naizena.

Salda eta txorizoa eta lehen ardo tanten usaina, oraindik goiz da baina… gero gure arropetan denok nabarituko dugu mahatsaren ordaina. Kaleetan barrena Mausitxa. Doinu alaiek dute zahar eta gazte dantzan ipintzeko giltza. Ai, beste batzuetan mugitzeko gaitasuna horrelakoa balitza….

Egunetik egunera jaietan aurrera; Txiki egunetik umeenera eta gero baserritarren artera eta ohartzerako musikaren botoia berirro off-era. Esaerak dio ezer ez eta festa. Elgoibarren jai girorako aitzakia faltarik ezta. Batzuk egingo dute protesta, baina irailaren 1ean ere irribarre bat ahoan duela joango da lanera berbetan ari zaizuen neska. Lana entzun orduko askoren burura bi hitz: astuna edo txapa. Mausitxa txarangaren kalejiraren lehen txapa hotsak entzutea ez al da zuendako poz galanta? Ondo pasa jaiak eta izan daitezela denondako egun alaiak.

Irati Agirreazaldegi



**“Oraindik goiz da baina… gero gure arropetan denok nabarituko dugu mahatsaren ordaina”**

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

SAN BARTOLOMEETAKO
ERRETRATU GUZTIAK MEDIATEKAN!
*IRAILAREN 1ETIK AURRERA.*



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

# BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIAK

## "Tabernariek eskertzen dute gure musika"



**Oier eta Arkaitz Baltzola trikikilariek kalejira egingo dute Baserritarren Egunean, goiz eta arratsalde partean. Gaztetxoak zirenetik irten ohi dira egun horretan. Sasoi hartan, hurrenez hurren bederatzi eta 11 urte zituztenean, 60 lagun inguruk ikasten zuten Elgoibarren soinu txikia jotzen. Maisu paregabea izan zuten: Zabale. Hogei urte daramatzate trikitia jotzen eta egoera zeharo aldatu bada ere, eurek tradizioaren hauspoari eragiten diote. Beste hiru bikote gazterekin kaleratutako lehen diskoan, *Faborez 02* lanean, bost pieza jo dituzte, eta Zabaleren eragina adierazi dute.**

Barren

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Andoni Iturbe PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

**Berezia da zuentzat baserritarren kalejiran jotzea?**
Bai, beti egun horretan jotzen dugu, maisuarekin irteten hasi ginenetik.
**Trikitia baserriarekin lotzen dute askok…**
Sasoi batean ez hainbeste, baina orain orduan baino gehiago. Trikitia baserriaren mundura gerturatzen ari da batez ere. Kaleko jendeak beste joera batzuk atsegin ditu. Jendeak trikitia entzutea eskertzen du, baina bereziki baserri giroko jendeak. Askoz ere indar handiagoa du trikitiak mendi erromerietan.
**Herritarrek, jai giroan, trikitilarien kalejira eskertzen dute?**
Bai, bereziki momentu jakin batzuetan: Baserritarren Egunean, festetan, edo afari baten ostean. Hortik kanpo, gazteen giroan murgiltzea gehiago kostatzen da.
**Baserritarren egunean ere tabernarik taberna ibiltzeko asmorik baduzue?**
Bai. Goiz eta arratsaldez joko dugu. Goizean baserritarren kalejira egingo dugu, eta gero normalean kalean buelta batzuk ematen ditugu jendea esnatu eta kalera irteteko. Ondoren, tabernaz taberna ibiliko gara jendea girotzen. Ikasle asko biltzen ginen sasoi batean, eta azken urteetan tabernarik taberna ibili gara. Tabernariek musika kendu eta eskertzen dute gure musika.
**Musika kentzen dute, beraz…**
Taberna guztietan, beharbada, ez, baina gehienetan bai.
**Elgoibar ez da Azpeitia edo Azkoitia. Han ere estimatuak zarete?**
Bai, askotan joan izan gara Sanandresetara, esaterako. Han jendeak trikitia asko estimatzen du, eta asko bizi dute. Lehengoan ere diskoaren aurkezpena Azkoitian izan zen, eta ia berrehun lagun joan ziren *Faborez 02* diskoaren aurkezpenera. Ez dugu esan nahi beste lekuren batera hainbeste jende joango ez zenik, baina afizio handia dute.
***Faborez 02* diskoan lau bikote gaztek parte hartu duzue. Zeuen diskoa kaleratzea zailagoa izango litzateke?**
Ez uste, lehenago ez dugu diskorik atera denbora kontuagatik. Azkenean, disko osoa prestatzeko denbora mordoa behar duzu. Ni montadorea naiz, eta urteko egun asko kanpoan ibiltzen naiz. Anaia autonomoa da, arotza, eta diskoa prestatzeko denbora mordoa behar da. Gainera, ez dugu sekula planteatu ere egin, zaletasuna delako guretzat. Trikitilari Elkarteak bost pieza egiteko aukera eman zigun, eta gustura onartu genuen.

> **“Jai giroan, jendeak abesti martxosoak nahi ditu: kalejira asko, salto egitekoak…”**

**Neskei erromerietan irteteko faborez eskatzen zieten. Oraindik ere hala ote da?**
Ez dakigu, sasoi batean asko erabiliko zen, baina gaur egun ez.
**Erromerietan jotzen duzue. Jende gaztea biltzen da?**
Bidanian edo Andoainen egiten diren erromeria nagusietan, gazte asko joaten dira, eta dantza egiten dute. Baina beste lekuetan, ia betiko jendea biltzen da. Bistaz ezagutzen ditugu, eta erromeria bila ibiltzen dira.
***Faborez 02*n bost pieza jo dituzue. Zein da zuen faboritoa?**
Beti trikitizaleak izan gara, *agarratuak* baino nahiago izan ditugu. Antzinako *agarratuak* gustatzen zaizkigu, baina trikitixa eta solteak jotzen erosogoago sentitzen gara.
**Zuen amets edo helburuetako bat zen merkatuan disko bat edukitzea?**
Esperientzia ederra izan da. Arrate Irratian bost grabazio izango ditugu. Ama Eibarkoa da, eta askotan joan izan gara *Sutondoko Erromeria* irratsaiora. Bestalde, disko bat egiteak ez dauka zerikusirik, atalka grabatzen delako: lehenengo soinua, gero panderoa, gero abestu… Bestelako mundua da ekoiztetxeena.
**Baina polita izan behar du eskuartean zuen izenarekin diskoa ikusteak…**
Polita izan da, hurrengoan, denbora izatean, gurea aterako dugu.
**Zuen errepertorio propioarekin?**
Disko honetan argi laga dugu gure maisua Zabale dela. Asko lagundu digu eta berarengandik jaso dugu ia dakigun guztia.
**Zein abesti eskatzen dizue jendeak?**
Denetik. Normalean, jai giroan, jendeak martxosoak nahi ditu: kalejira asko, salto egitekoak, rantxerak...
**Solteak gutxi…**
Bai, orain dela gutxi lagun batek Elgoibarren dantza soltea ikasteko ikastaro bat dagoela esan zigun, eta harritu egin ginen. Hogei lagun omen dabiltza ikasten. Elgoibarren ez da solte askorik egiten. Baina Andoain inguruan adibidez *agarraturik* ez da egiten; ia dena solteak dira.
**Oporrik gabe geratuko zarete?**
Astebete hartuko dugu gutxienez udan.
**Japoniarrek ere astebete hartzen dute urte guztian…**
Baina festetan soinua jotzen ibiltzea ere gustuko lana da.
**Zein da jaietako zuen egunik gogokoena?**
Txiki Eguna, eta Baserritarren Eguna. Giro polita sortzen da.

**Andoni Iturbe**

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

# Gazta lehiaketa antolatu dute baserritarren egunerako

Gabon Zahar Feriako sariketa San Bartolomeetara aldatu dute

San Bartolome jaietara aldatu dute Gabon Zahar Feriako Gazta Lehiaketa, eta baserritarren egunean izango da, abuztuaren 30ean. Latxa eta karrantzana arrazetako ardi esnez egindako gaztek parte hartu ahal izango dute.

Orain arte Goiko-Errota elkarteak jardun du gazta lehiaketa antolatzen. Elkarteak aspaldi eskatu zuen beste sasoi batera aldatzeko, bi arrazoi direla-eta: batetik, Gabon Zahar Feriak batzuetan urte zahar egunarekin bat egin dezakeelako; eta, bestetik, gaztagile guztiek ez dutelako abenduan gaztarik prest (horretarako bildotsen erditzeak aurreratu egin behar dituzte artzainek).



### Gaztagile batzuk, pozik

Hainbat gaztagilek, gainera, begi onez ikusten dute lehiaketa San Bartolome jaietan egitea. Haien iritziz, abuztu bukaera sasoi aproposa da irailean Ordiziako gazta lehiaketan aurkeztu beharreko gazten maila neurtzeko.

Elgoibarko Udalak lehiaketa sasoiz aldatzea erabaki badu ere, Goiko-Errotak aurten ez du antolatzen jardungo. 26 urtean zeregin horretan jardun ondoren, lagatzea erabaki du. Udala izango da, beraz, antolatzailea, Kalamua elkartearekin batera.

Era guztietara, Udalak Gabon Zaharretan ere gazta lehiaketa antolatzen jarraitzeko asmoa azaldu du, saritutako gaztagile onenekin. Gabonetarako gonbidapen bidezko lehiaketa prestatzekotan dihardu.

### Sariak

San Bartolome jaietako gazta irabazleak 480 euro, txapela eta garaikurra eskuratuko ditu. Bigarrenak, berriz, 400 euro eta garaikurra. Hirugarrenarentzat 350 euroko saria izango da, garaikur eta guzti.

Sariketan parte hartuko duten guztiei gazta saltzeko aukera emango die Udalak. Lehiaketako gaztak salgai egongo dira, beraz.

URKIOLA

Jaiak zuekin ospatzeko prest!

San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 74 20 73




TEXTIL HOGAR
KOLTXOI DENDA
LAGUNAK

Ondo pasau jaixak!

LAGUNAK
24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe
San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com

MADIGAN´S
IRISH PUB



- Gosariak
- Ogitartekoak
- Razioak
- Sandwichak
- Entsaladak
- Postreak
- Plater konbinatuak



GIRORIK ONENA!

Ordutegia: igandeetan, 10:00etatik aurrera
Astelehenetik larunbatera 19:00etatik aurrera

Bernardo Ezenarro, 2 behea
Tel.: 943 53 15 57


ZOZKETA
BI LAGUNENTZAKO BIDAIA
KANARIETARA ASTEBETERAKO
Zozketa eguna: 2008/12/22 - (notario aurreko zozketa)
correduría de seguros
URNOBITZA S.L.
Pedro Migel Urruzuno kalea, 31 behea
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
KANPAINA: 2008/04/01etik 2008/12/19ra
J - 0006 EUS
AURREKONTUA ESKATZEAGATIK BAKARRIK
ZURE ETXE/AUTO ASEGURURAKO


Ondo pasau San Bartolomiak
Muruamendiaraz
ELGOIBAR
Jaixak Ondo pasau"
Jaiak nahi badituzue
gozo-gozo igaro
Muruamendiarazen
aukera ugari dago
MURUAMENDIARAZ gozotegia · San Bartolome, 34-35 · Tel. 943 740 345

Jaietan, planak aukeran.

# San Bartolomeetan zer egingo duzu?



**Gloria Santiago**
**57 urte, laguntzailea**

Jaietan ez naiz egongo, kanpoan izango naiz-eta. Hala ere, Txiki egunean etortzeko asmoa daukat, egun hori gustuko dudalako. Egun horretan pasatzen dut ondoen: neurri gabe ibiltzeko egokia da. Bestela jaiak niretzat ez dira aparteko zerbait: gauza garrantzitsuren bat laga beharko banu jaietara etortzeko, ez nuke lagako.



**Olegario Gonzalez**
**83 urte, jubilatua**

Batzuetan kanpora joaten naiz, baina nik oso gustuko ditut San Bartolome jaiak. Zer egingo dudan aurten? Parranda, je, je, je... Niri parrandan ibiltzea gustatzen zait. Lehen Burgosen ardoa gustuko nuen, eta gero hemen ere bai. Baina orain ezin edan! Erromerietan dantza asko egin izan dut. Jubilatuen bazkarira joango naiz, jatuna naiz-eta.



**Jon Conde**
**10 urte, ikaslea**

Zezenetara joateko asmoa daukat, eta gero barraketara. Paga barraketan gastatuko dugu. Umeen bazkarira ere joan izaten naiz, baina marrazki lehiaketan ez dut parte hartzen. Jaiak etortzeko ilusioa badut. Gehien-gehien sokamuturra gustatzen zait. Zezenaren aurrera ez naiz irteten, baina gustatzen zait ikustea.



**Arantza Apraiz**
**52 urte, etxeko andrea**

Goizean jaisten gara meza osteko dantza taldeak ikustera. Txiki Egunean zezena ikustera joaten gara, urrutitik; anbientea pixka bat ikusi eta gero, salda edo txorizoa hartzen dugu. Pelota partidua Txiki Egunean ikusten dugu urtero, normalean. Iluntzeetan, plazan jarri eta dagoena ikusi: musika badago han egoten gara, eta ondo ibiltzen gara.




# Plazara dantzara!

## Musikak leku garrantzitsua hartuko du aurtengo jaietan ere

**Lotsa etxean laga, eta plazara dantzara! Entzuteko izateaz aparte, musika dantza egiteko da, eta aukera bikaina izango da aurten ere. Dantzarako oinetako aproposak jantzi, eta eskeletoa mugitu! Ez dakizula dantzan? Jaietan baldarrenak ere, ikasten du dantzan. Jarraian bildu dugu jaietan izango den musika eskaintza. Aukeratu zeurea, eta gozatu!**

### Reprexion eta Destroi

**Abuztuak 22, 22:00etan Gaztetxean**

Gaztetxeak II. urteurrena ospatzeko, kontzertua antolatu du. Zumaiako Destroi eta Reprexion taldeak arituko dira bertan, besteak beste. Reprexion 2007an sortutako taldea da; talde gaztea, beraz. Bost lagunek osatzen dute, eta rock and roll doinuak egiten dituzte. Destroi taldeak doinu gogorragoak eskainiko ditu.

### Batucando no ar

**Abuztuak 23, 19:00etan**

Brasil aldeko doinuak Elgoibarrera ekarriko dizkigu perkusio talde honek. Bertako musika instrumentu orijinalekin (surdoa, sanba kaxa, agogoa, tanborilak…) alaituko dituzte herriko kaleak. Hankapaloetan ibiltzen dira musikari eta aktore horiek.

### Toom Pak

**Abuztuak 23, 23:00etan Plaza Handian**

Perkusio taldea da Toom Pak. Ikuskizun berezia eskainiko digu: urak eta suak, musika eta hainbat koreografiarekin nahastuta, erritmo eta mugimendu bereziak sortzen dituzte. Eskenatoki gainean mugitzen hasten direnean, ikuslea harrapatuta geratzen da. Ikuskizun alaia da.

### Pixie and Dixie

**Abuztuak 24, 19:00etan kalejira**

Valladolideko Peñafiel herritik datorkigu Pixie and Dixie taldea. 1993an sortu zen taldea, eta ordutik ezagunak egin dira euren *dixieland* doinuak. Jazz estiloko musika da nagusi euren abestietan, eta, batez ere, modu akustikoan aritzen dira. Euren musika entzuteko oso erraza da, eta mota guztietako jendearen entzumenera egokitzen da, gainera. Herriko kaleetan ikusteko aukera izango dugu.



### Turutarra fanfarrea

**Abuztuak 25, 19:00etan kalejira**

Bilboko Zorrotza auzotik datorkigu Turutarra fanfarrea. 1980. urte inguruan hasi zen lagun koadrila bat musika taldea sortzeko ideiarekin, eta bi urte geroago jarri zuten martxan. Poliki-poliki hasi ziren, eta urteak aurrea joan ahala, talde handia eta sendoa osatzea lortu dute. Azken urteotan, Euskal Herriko kaleak alaitzeaz aparte, kanpoan ere ibili izan dira; Nizako inauterietan esate baterako.

### Duo Plaentxi

**Abuztuak 26, 23:00etan Plaza Handian**

Hemeretzi urte daramatzate Duo Plaentxi izenarekin, baina musika egiten eta abesten, askoz gehiago. Jesus Urizar eta Jose Luis Badiolak osatzen dute bikotea. Biak Soraluzen jaioak dira, baina Elgoibarren bizi dira aspalditik, bertara ezkondu baitziren. 2007ko azaroan atera zuten euren estreinako diskoa. Mexiko aldeko ranchera eta bolero doinuak dira nagusi euren lehenengo lan horretan, eta horixe eskainiko dute umeen eguneko kontzertuan.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

### Sama Siku fanfarrea

**Abuztuak 27, 18:00etan**

Bilboko Santutxu auzotik datozkigu fanfarre doinuak. 1978an sortu zuten taldea, eta 1980an eskaini zuten euren lehenengo kalejira. Ordutik gelditu gabe aritu dira hainbat herritako kaleak alaitzen. Aurten Elgoibarren izango ditugu.

### Kerobia

**Abuztuak 29, 23:00etan Plaza Handian**

Kerobia Xabi Fernandezek (kitarra eta ahotsa), Mikel Zorrillak (bateria), Alberto Isabak (baxua) eta Mikel Isabak (teklak) osatzen dute Kerobia. Iruñeko taldea 2001. urteko azken hilabetean sortu zen. 2003ko urtarrilera arte hirukotea izan ziren, baxujolea sartu arte. 2008ko apirilean kaleratu zuten euren hirugarren lana: *Materia Organikoa*. Lan hau trilogia baten lehenengo zatia besterik ez da. 2009ko otsailerako espero da bigarren zatia eta 2009ko urrirako hirugarren eta azkena. Gazteen gaua girotuko dute gazte horiek.





### Kaotiko

**Abuztuak 29, 23:00etan Plaza Handian**

Aguraingo rokero koadrila batek osatzen du Kaotiko. 2000. urtean sortu zen taldea, eta hiru lagunek osatzen dute: Fonta (baxua), Aguayo eta Aguayiko (gitarrak). Kaos Etiliko taldea desegitean sortu zen Kaotiko, eta berehala hartu zuen indarra. Ahotsean Jony jarri zen eta Xabi baterian. Horrela osatu zuten boskotea. Soinu propioa, energikoa eta orijinala egiten dute.

### Tapia eta Leturia

**Abuztuak 30, 23:00etan**

Plaza Handian Joseba Tapia trikitilariak eta Leturia pandero-joleak sortu zuten bikotea 1984an. Arkaitz Miner (biolin-jolea) eta Txus Aranburu (piano-jolea) bi musikari horiekin elkartu zirenean, laukotea osatu zuten. Fernando Irazoki jazbana jole beratarra da taldeko kide berria, aspaldiko laguna; Tapia eta Leturia Band taldeko teknikaria izan zen. Ondo ezagutzen dute elkar eta gogo handiz ekin diote proiektu berriari.

### Egan

**Abuztuak 25, 22:30ean Plaza Handian**

Xabier Saldias kantari azpeitiarra da Egan taldearen ahotsa. Ohiko erromeria giroari kutsu modernoagoa eskainiko dio Egan taldeak. Euren abestiekin batera, talde ezagunen euskarazko bertsioak egiten dituzte. Gaur egun, dantzariak ere baditu taldeak, taula gainean giroa alaitzeko.

### Trikizio

**Abuztuak 25, arratsaldean Madalan**

Trikizio taldearen lehen diskoak "EusCat" izenburua du, eta bertan bi kultura senidetu nahi izan dira, Euskal Herria eta Katalunia, horretarako, bi herrialdeetako kantu ospetsuenak bertsionatu ditu taldeak. Kepa Junkerak, Joseba Tapiak, Obrint Pasek, Gosek, Betagarrik... parte hartzen dute disko honetan, gonbidatuta. Txiki Egunean elgoibartarrak dantzan jarriko ditu talde horrek.

### Morau eta Agotak

**Abuztuak 24, 23:00etan Madalan**

Tabernazuloak izan ziren Morauren kantuetarako lehen aterpea, Songwriter edo kantu idazleen tradizioak agintzen duen eran. Morauren musika joerak ondo zehaztuta zeuden hasieratik: gizartearen erretratu ironikoa eskaintzen duten pop kantu zuzenak egiteko argitasuna, bihotzaren kontuak balada goxoetan islatzeko sentsibilitatea, eta, oso garrantzitsua bere musika ulertzeko: nortasun propioa izateaz gain, xarmako kantari agertu zen hernaniarra, salbuespen goxo bat euskal musikan. Agotak laguntzen dio orain hernaniarrari.




LARRAÑAGA AUTOESKOLA

Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

# Juan Carlos Mancisidor: "Munduko goitibehera txapelketa irabazi arren, oso zaila izango da San Roken nagusitzea"

## Sanroketarrek datorren barixakuko jaitsiera handian parte hartuko dute

Datorren barixakurako Zuhaitz aisialdi taldeak San Roken Goitibehera jaitsiera handia antolatu du. Bururatu izan balitzaie, Europako edo Euskal Herriko txapelketa izendatu zezaketen. Horixe egin zuten Iruñeko sanfermineko peñek antolatzen duten goitibehera txapelketan: Munduko txapelketa zela esan, eta kitto. San Rokeko lagunek errodamenduen kategorian munduko txapelketa hori irabazi zuten Sanferminen atarian. "Iruñekoari munduko txapelketaren izena jarri diote, baina txapel bat besterik ez da, eta gainera, ez da beste mundukoa", adierazi du Juan Carlos Mancisidorrek.

Guztira, 11 lagunek osatzen dute Sanroketarren koadrila, eta ahal duenak hartzen du parte jaitsieran. Iruñean bakarrik lehiatu dira aurten, eta Elgoibarren bigarren aldiz. Joseba Iriondo, Agustin Zubiaurre, Arkaitz Aranburu, Jon Arbizu, Unai Elortza, Iker Izagirre, Joseba Mir, Tomas Carrascosa, Xabier Ansola, Juan Carlos Mancisidor eta Iban Segurola dira sanroketarrak. Lau edo bost mekanikoak dira, edo gutxienez mekanikan trebeak.

### Renault ala Ferrari

Bi goitibehera dituzte. Azkena urtebetean egin zuten, behin baino gehiagotan hasi eta laga ondoren. "Beti izaten digu kezkak mekanikari dagokionez, eta beti dago zerbait hobetzeko", adierazi du Juan Carlosek. Gainera, Bat Formulako pikea goitibeheren mundura zabaldu dute. "Berria, azkarra eta gidatzeko zaila da eta erroberetan oker bat du. Ferrari izena jarri genion, eta zaharrari, Renault", argudiatzen du umoretsu.

Goitibeheren munduan berrikuntza teknikoak eta prestakuntzak erabakiorrak dira. Egin zuten lehen goitibeherak egonkortasun eskasa du, eta geldoa da gaur egungoen aldean. Helburua goitibehera lehiakorragoa egitea zen, eta koadrilako mekanikoek lan mordoa egin behar izan zuten. Baina aurkariak ere ez dira lo egon. San Bartolomoeetara datozen bizkaitarrek kristoren maila daukate. "Oso goitibehera ona dute; auto bat dute burdinazko erroberekin eta amortiguazioarekin", dio Juan Carlosek.




Eurena hobetzeko asmoa dute ahal duten neurrian, baina helburu nagusia ondo pasatzea da. Iruñean ere ederki pasatu zuten. 4.000 lagunetik gora joan ziren proba ikustera.

### Bi txanpa

Sanroketarren ustetan, datorren barixakuan 12:30etik aurrera hasiko den probak bi txanpa izan beharko lituzke. "Bi txanpa balitu, ikusgarriagoa izang litzateke. Beste txapelketetan bi edo hiru egon ohi dira", gogoratzen dute.

Burdinazko goitibeherak etortzen dira batik bat Elgoibarrera. "Kanpotik ere jendea etortzeko, sariaren mailak garrantzia du", ondorioztatzen dute. Sari nagusia 260 eurokoa izango da; bigarrena 220 eurokoa, eta hirugarrena 180 eurokoa. Etxean jokatuko dute, atsegin duten ibilbide azkar horretan. Baina ez da erraza izango. "Munduko goitibehera txapelketa irabazi genuen, baina oso zaila izango da San Roken nagusitzea", dio Juan Carlosek.



# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com

## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santana Iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Pinturak

**Blok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94


LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA
TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54


jai
zoriontsuak!
elgoibar ikastola
Herri Onurako izendatua


URDAITEGIA - JANARIDENDA
DORI
Errosario kalea, 29
Tel.: 943 74 11 92 /943 74 10 25
· Produktu iberikoak
· Hestebeteak
· Urdaiazpikoak
· Kontserbak
· Gaztak / Pateak

Belaustegi Baserria JATETXEA

San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02


















*Zatoz San Bartolometako menua dastatzera!*

Portxe-jardinean bazkaldu edo afaltzeko aukera.

Ostiral eta larunbatetan, gaueko 10etatik aurrera kopak jardinean.

API Burtsa informatikoa



317 api

GABILONDO

INMOBILIARIA AGENTZIA

Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo

Jai zoriontsuak denoi

Errosario kalea, 21 • ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27



Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR
Tel: 943 741 656 / 943 740 117
Mugikorra: 635 75 62 95
E-posta: tanaetxe@terra.es

EHORZKETA

ETXEBERRIA, S.L.




ESTUDIOS ARRILLAGA



PROYECTOS - REFORMAS,
LOCALES COMERCIALES,
VIVIENDAS.



Arragueta, 12 Bajo • 943 20 06 98
Rosario, 15 • Elgoibar • 943 74 40 19

# San Bartolomiak 08

## *Egitaraua*

## alkatearen *agurra*



Herritar hori, agur t'erdi:

Udako oporretan gaude, eta aukera bikain honetaz baliatu nahiko nuke, zuregana zuzentzeko, eta 2008ko San Bartolome jaietako egitarauaren bitartez, opor onak eta jai alai eta zoriontsuak opatzeko.

Bezperak jendea elkartzeko duen indarra, San Bartolome egunaren handitasuna, Txiki egunaren alaitasuna eta adiskidetasuna, Baserritarren egunaren nortasuna, ... hori eta gehiago dira San Bartolomeak..

Jaietako agurra idazterakoan, igarotakoa eta datorren urtea etortzen zaizkit gogora. Bizi izan ditugunak eta etorriko direnak. Jaioberriak eta utzi gaituztenak. Jaiek badute bakoitzarentzat bere alde pozgarri eta alaia, hala izan dadila, gainera; baina aldi berean utzi gaituztenak eta urrun ditugunak ere gogoan ditugu.

Udalean ilusio handiz aritzen gara jaiak prestatzen eta antolatzen, herritarrok ondo mereziak dituzue eta. Betidanik esan izan da, jaiek eta urteko eginbeharrek lotura zuzena dutela, jaiak lan urtea agurtzeko eta ospatzeko direla. Horrela bada, izan ezazue aste zoriontsu eta berezia, merezi duzue eta.

Bukatzeko, ohore handia da, zuen bitartez, familia eta adiskideei bisita gaitzaten gonbitea egitea.

Ondo igaro jaiak. Bertan elkar ikusiko dugulakoan, agur.

**Alfredo Etxeberria**

Jose Angel Zabala
MAHASTI
Urdaitegi eta ardandegia
Merkatu plaza,30, 33, 34 • 615 76 03 72

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 - 3.sotoa 943 74 38 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

URKIDI
AHOLKULARITZA
Liberty Aseguruak
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

MECANIZADOS S.COOP
BUKATU.
OLASO Poligono Industriala - Olasope kale, 6
66 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Http: www.bukatu.es

NORFO
Ondo pasa jaiak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

## ABUZTUAK 22, *barixakua*

**20:00 ARGAZKI ERAKUSKETA**
“Mecanica popular” argazki erakusketaren inaugurazioa. Jose Luis Ramirezen argazkiak, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Irailaren 6ra arte.

# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, *zapatua*

**9:00 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**
Elite Mailako Amateurrentzat (19-23 urte). Gure Bide Elkarteak antolatuta.
Irteera: Plaza Handian.
Helmuga: Santa Klaran 12:00etan.



**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA**
Udaletxean ikurrina jasoko dute jaiak hasteko. Plaza Handian.





**Ondoren,** Mauxitxa txarangaren kalejira.

**16:00-20:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian
(Euria egiten badu, Sigman).

**16:30 IZUGARRIZKO SORPRESA**
Zaharren Biltokian.

**17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.

**17:00 FUTBOL PARTIDUA MINTXETAN**
C.D. Elgoibar-Amaikak Bat F.T.
Antolatzailea: C.D. Elgoibar.

**18:30 ESKUBALOI PARTIDUA**
J.D. Arrate-Natur House Logroño.
Antolatzailea: Sanlo Eskubaloi taldea.

**19:00 KALEJIRA**
Batucando No Ar taldea.

**19:00 KIROL ARGAZKIEN ERAKUSKETA**
Kultur Etxeko sotoan, hilaren 30era arte.

**20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA**
Udal Txistulari Taldeak lagunduta Udalbatza San Bartolome parrokiara joango da, Alkate Soinua joz.

**Jarraian,** Kartel Lehiaketako eta Kirol Argazki lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira Udaleko pleno aretoan.

**23:00 KONTZERTUA**
Toom Pak taldearen ikuskizuna Plaza Handian.

murrplastik
■ KABLEENTZAT KATEAK
■ IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
■ KABLEENTZAT PLAKAK
■ TUBOAK ETA ERRAKOREAK

USATORRE Taberna
San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99
Jai zoriontsuak igaro!

Jai zoriontsuak!
ARBELOA INMOBILIARIA
arbeloa@telefonica.net
San Frantzisko, 34
Tel.: 943 74 84 27

Olaia estetika
ONDO PASA JAIAK!!!
San Inazio, 4 behea - Tel.: 943 74 27 25
• Garbiketak
• Makilajeak
• Aurpegi-tratamenduak
• Gorputz-tratamenduak
• Solariuma
• Masajeak
• Manikurak
• Depilazioak
• Laserra

Gorbea TABERNA
Jai zoriontsuak!
Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 19 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 748 570

# OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK
*Kemen Belardenda Berria! Naturopata, Iriodologoa eta Homeopata*

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...Bach loreak, P.N.L., makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)
San Bartolome, 25
Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

*Sanatana Dharma Yoga Elkartea*
Urasandi, 9
Tel: 943 74 85 93 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/
15-16:30/18-19:30/
20-21:30

*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan:
20:00-21:30

OPTIKAK
*Ikus Optiko-optometrista*
San Bartolome, 10
Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 /
16:30-20:00

*Uzuri*
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 /
16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK
*Irale*
Errosario Kalea, 7 behea
(Elgoibar)
Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea
(Ermua)
Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com
webgunea: *www.irale.com*

ORTOPEDAK
*Itziar Sarasketa*
San Francisco, 12
Tek: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00/
17:00-20:00

MASAJISTAK
*Victoria Iraegi*
(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)
San Frantzisko kalea, 40
(atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera
8:00 - 14:00

FISIOTERAPIA
*Ainhoa Fisioterapia*
Eragozpen fisikotik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskeiniko litzateke.
Tel. 943 53 19 53 /
669 565 745
(Goiz eta arratsaldez)
Jausoro, 6 behea

PODOLOGOAK
*Oinberri*
Errosario kalea, 25
Tel: 943 74 17 95
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30



# San Bartolome Eguna

## ABUZTUAK 24, *domeka*

9:15 **HERRIKO DULTZAINEROEN DIANA**

9:45 **UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**



10:00 **UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**

10:45 **ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udal Musika Bandak, txistulari taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome parrokiara joango dira meza nagusira. Mezatan parrokiako abesbatzak kantatuko du.



Jarraian, **SOKA DANTZA** Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin Plaza Handian.



Ondoren, **UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Plaza Handian.

16:30-21:00 **HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian (euria egiten badu Sigman).

17:30 **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**

Herriko dultzaineroekin batera.
18:00 **PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako frontoian.



18:30 **ZALDIEN DANTZA IKUSKIZUNA**
Plaza Txikian.

19:00 **PIXIE AND DIXIE BANDA**
23:00 **SU, ARGI ETA MUSIKA IKUSKIZUNA**
San Bartolome parrokian.

Jarraian, **IÑIGO MAGOAREN IKUSKIZUNA**
Plaza Handian.

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

EDARI BANATZAILEA

GASEOSA PITUSA

INSALUS

eva

San Miguel

San Miguel 0,0

GURELESA

SANTA ANA, 41
☎ 943 74 10 41
Mobila: 659 77 23 89

MILENIUM XARMANT
aseguru artekaritza

www.xarmant.com

Teknologia berrietara egokitzen gara geure bezeroen mesederako. Eska itzazu zure aurrekontuak online, eta gure web gunetik behar duzun informazioa emango dizugu.

Trenbide kalea, 21 behea
Tel.: 943 74 80 92
Faxa: 943 74 82 42

MILENIUM XARMANT

XARMANTen edozein aseguru mota kontratatzeko beharrezkoa duzun laguntza eta informazioa emateko lan egiten dugu, ahal den arinen eta eraginkortasun handienarekin.

*Ondo pasa jaiak!*

# Txiki Eguna

**ABUZTUAK 25,** *astelehena*

7:30 **DIANA**
Mauxitxa Txarangarekin eta Herriko dultzaineroekin.

Ondoren, **SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.
(Madalatik)

Jarraian, **SALDA eta TXORIZO BANAKETA**
Ego-toki, Zubi-ondo, Gure Bide, Herri Gain, Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

12:00 **HAURRENTZAKO ZEZENTXO eta PONIAK**
Plaza Txikian.

12:00 **MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**

18:00 **PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako Frontoian.



18:30 **ZEZEN ETA BETIZU ENBOLATUAK ERREKORTATZAILE ETA OZTOPOEKIN**
Plaza Txikian.

19:00 **TURUTARRA FANFARRIAREN KALEJIRA**

22:30 **DANTZALDIA**
Egan taldearekin, Plaza Handian.

10:30 **HAURRENTZAKO ENTZIERROA**

## Umeen Eguna

**ABUZTUAK 26,** *martitzena*

King-Kongetik Plaza Txikiraino.

10:45 **ZEZENTXOAK eta PONIAK**
Plaza Txikian.

11:30-14:00 **MARRAZKI LEHIAKETA**
Elizako arkupeetan
Gaia: "Ura"
Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea

14:00 **HAURREN BAZKARIA**
Zazpi eta hamalau urte bitartekoentzat, elizako arkupeetan. (Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du. Edaria eta postreak banatuko dira).

14:30 **HAURRENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian.
(Euria egiten badu Sigman).

16:30-18:00 **ZALDI LASTERKETA IKUSTERA JOATEKO IGOERA ZALGURDIAN**
Madalatik Upaitzako zelaietara.

18:00 **ZALDI LASTERKETA**
Upaitzako zelaietan, Albitxuri Industriguneko goiko aldean.

18:00 **MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

Ondoren, **ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA**
Mauxitxa Txarangarekin.

20:00 **UMEENTZAKO JAIALDIA TXANOGORRITXO ROCK TALDEAREKIN.**
Plaza Handian.

23:00 **KONTZERTUA**
Duo Plaentxi taldearekin, Plaza Handian.






Elgoibarko Institutuak

Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net



eta
Herri Eskolak

Kalamua, 18
Tel.: 943 74 08 79



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE!

ETXEPE
MEKANIZATUAK
LAN BEREZIAK
MEKANIZATU HANDIAK
Web orria: www.etxepe.com
e-posta: etxepe@etxepe.com
Ibaitarte Industrialdea, A2
Tel.: 943 74 12 97 - 943 74 06 64
Faxa: 943 74 43 21

Biak
ileapaindegia
San Inazio, 4 • Tel.: 943 74 27 25

Idama
Ileapaindegia - Estetika - Solariuma
Antonio Arrillaga, 6-8 behea
(sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26
Ondo pasa jaixetan!

OLASO
TABERNA-JATETXEA
Gosariak - Menuak...
Jai zoriontsuak!
Olaso Industrialdea, 15 · Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07

LAGUN ARO
ASEGURUAK
Euskadiko Kutxa Taldekoa
Ondo pasa jaixak!
Santa Ana, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Te.: 943 74 73 70
Faxa: 943 74 10 51
E-posta: ygarcia@seguroslagunaro.com



# Jubilatuen Eguna

## ABUZTUAK 27, *eguaztena*

**8:00 IDIARENA**
Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA**
Arnoren zezenekin, Madalan hasita.

**12:00 HEGALUZE DASTAKETA**
Nafarroa Plazan, Danborradaren Batzordeak antolatuta.

**12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA**
San Bartolome parrokian.

**14:00 JUBILATUENTZAKO BAZKARIA**
Olaizaga kiroldegian, Eguren Orkestrak alaituta.



**17:00 UMEENTZAKO ZEZENTXO eta PONIAK**
Sigman.

**18:00 KALEJIRA**
Sama Siku fanfarrearekin.

**19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA**
Plaza Handian.

**22:30 SUZKO IKUSKIZUNA**
Deabru Beltzak taldearen "Les tambours de feu" ikuskizuna.

## ABUZTUAK 28, *eguena*

**19:30 UDAL MUSIKA BANDAREKIN DANTZALDIA**
Plaza Handian.

## Gazteen Eguna

### ABUZTUAK 29, barixakua

**8:00 DIANA**
Herriko Dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA eta TXORIZOA**
Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:30 GOITIBEHERAK**
San Roken. Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea.

**Jarraian, KARTS ERAKUSTALDIA**
San Roken.

**Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA.**



**16:30- 19:00 FUTBOL PARTIDUAK ZEZEN ENBOLATUEKIN**
Sigman. Antolatzailea Zuhaitz Aisialdi Taldea.

**19:00 KALEJIRA**
Zo Zongo fanfarrearekin.

**23:00 KONTZERTUA**
Kerobia eta Kaotiko taldeekin, Plaza Handian.

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.
Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Brochados y planeados
albe S.L.
LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
ONDO PASAU FESTETAN!
Sigma Industrialdea · Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

IDARRAGA KAFEAK
S. FRANZISKO KALEA, 17
ELGOIBAR
Ondo pasa jaiak!
Eguneroko errealdiak
Olaso industrialdea, 15 (55 E lokala)
Tel. 943 74 05 33 - Mugikorra: 675 70 87 39

ESKURA EZAZU TXANKAKUA TXARTELA

TXANKAKUA txartelarekin erosterakoan, puntuak bildu eta opariak irabaziko dituzu.

Puntuen katalogoa

- Doakoa da.
- Ordaindu 3 hilabetetan, interesik gabe.
- Bankuz aldatu gabe.
- Bildu puntuak erregaluengatik trukatzeko.
- Deskontuak urteko hilabete jakin batzuetan.

| | |
|---|---|
| AGIRRE SASTRERIA | 740341 |
| ARANBURU BITXIDENDA | 742535 |
| ARAURI LURRINDEGIA | 741759 |
| ARRIETA MODAK | 740849 |
| AZKUE ARGAZKI DENDA | 740848 |
| CASA ASTIGARRAGA | 743268 |
| DORI URDAITEGIA | 741192 |
| ECENARRO MERZERIA | 742619 |
| FARMA APRAIZ | 743606 |
| FERPI MODAK | 740815 |
| GARATE JANTZIDENDA | 741129 |
| GARBIÑE ESTETIKA | 743132 |
| GOFI | 744653 |
| GOIARA DROGERIA | 741133 |
| IDARRAGA KAFEAK | 740533 |
| IKUS OPTIKA | 743734 |
| IRIONDO ALTZARIAK | 741234 |
| IRIONDO KIROLAK | 740958 |
| KALA LORADENDA | 744518 |
| KARKIZANO | 740549 |
| LA INDUSTRIAL GUIPUZCOANA | 740139 |
| LANBROA | 740806 |
| LANDA HARATEGIA | 742758 |
| LEIGAR ELEKTRAGAILUAK | 740054 |
| LETE | 744199 |
| LOMBOK | 531068 |
| LUVIK OINETAKOAK | 744345 |
| MG BURDINDEGIA | 740831 |
| MURUAMENDIARAZ | 740345 |
| NATUR HOUSE | 741078 |
| ORTOPEDIA ITZIAR SARASKETA | 743562 |
| OSORO OINETAKOAK | 740235 |
| OSTARKU ARGAZKI DENDA | 740646 |
| PATXI HARATEGIA | 743504 |
| PIPES | 740407 |
| PITXINTXU | 743206 |
| SARA JANTZIDENDA | 743555 |
| SIGLO XXI | 742306 |
| SKANDALO OIHALA ETA MERTZERIA | 743595 |
| SOFTLAN | 748105 |
| SUMOFIC | 744102 |
| URKIDI AHOLKULARITZA-ASEGUROAK | 741891 |
| UZURI OPTIKA | 740359 |
| XIGORTZE OPARIDENDA | 744341 |
| ZAZPI INFORMATIKA | 743787 |
| ZELETA BARAZKIAK | 743022 |
| ZIUR | 531205 |

Diru laguntzailea: EUSKO JAURLARITZA Industria, Merkataritza eta Turismo Saila


# Baserritarren Eguna

## ABUZTUAK 30, *zapatua*

**9:30 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGI-ETORRIA**
Haritz Dantzari Taldeak eta Udal Txistulari Taldeak harrera egingo diete Nafarroa Plazan

**Jarraian, BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**10:00 EUSKADIKO LIMUSIN ABELGORRIEN XVI. TXAPELKETA**
Limusin arrazako arren eta emeen enkantea. Plaza Txikian.



**11:00 XXV. SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTAKETA**
Plaza Handian, Sallobente Elkarteak antolatuta.

**11:00 XXVII. GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA**
Nafarroa Plazan. Antolatzailea: Kalamua Elkartea.

**12:00 KALEJIRA**
Bentazaharreko mutiko alaiek abesti herrikoiak kantatuko dituzte.

**13:45 SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Plaza Handian.

**14:15 GAZTA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Nafarroa plazan.

**14:30 BASERRITARREN ANAIARTEKO BAZKARIA**
Sigma jatetxean, Eguren orkestra eta bertsolariekin.

## *Egitaraua*



**17:00 BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**18:00 KALEJIRA**
Bentazaharreko mutiko alaiek abesti herrikoiak kantatuko dituzte.

**18:00 SAN BARTOLOMEETAKO X. HARRIJASOTZE**



**TXAPELKETA**
Plaza Handian. (Euria bada, Ikastolan)
Antolatzailea: Kalamua elkartea.

Jarraian, **GANADU LEHIAKETAKO ABELTZAINEI SARIAK BANATUKO ZAIZKIE**
Plaza Handian.

**23:00 KONTZERTUA**
Tapia eta Leturiarekin, Plaza Handian.

Ondo pasa jaiak!
IRATXO
ROCK-KAFEA
San Frantzisko, 41 · Tel. 943 74 02 57

DEBAPE
inprimategia
komunikazio grafikoa
ONDO PASA JAIAK!
Liburuxka, publizitate, papergintza komertzial, kartel, ezkontza gonbidapen, etab..-en diseinu eta inprimaketa.
Inprimaketa digitala
SIGMA Industrialdea • Xixilion 2 - 2. solairua, 7. lokala
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
debape@debape.com • www.debape.com

estetikaalire
* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
* Ongizate tratamenduak
* Masajeak
* Depilazio mota ugari
* Mikropigmentazioa
* Manikura
* Solariuma
* ...
Upaiz zaharra, 1 behea
Tel.: 943 531 636
Elgoibar
Ondo pasa jaiak!

POLIKIROLDEGIKO TABERNA
San Bartolometan bazkari eta afariak



San Roke 1, Tel.: 620 13 59 58 Aurretiko enkarguak egin behar dira

# LERUN JATETXEA

*Ondo pasa San Bartolomiak!*



## Ordutegia

Astelehenetik ostiralera
7:00etatik aurrera
Larunbatetan
8:00etatik aurrera
Igandetan
11:00etatik aurrera

Eguneko menuak • Asteburuetan bazkari eta afariak

**SAN BARTOLOMEETARAKO MENU BEREZIA PRESTATU DUGU**







- **Wifi**
- **Ospakizunak**
- **Pintxoak enkarguz enpresetara eramaten ditugu**




Tel.: 943 74 31 96 • Lerun, 6 (Netto Merkatalgunea)

# ASKETA S.L.

**Eraikuntzako zerbitzu integrala**

Maxpe, 3-5 behea
20820 DEBA
Tel.: 943 19 19 52 ( 6 linea)
Faxa: 943 19 24 60
E-posta: asketa@telefonica.net
www.asketa-reformas.com

**Fatxada eta teilatuetan espezialitatea**
**Gehienezko kalitatea prezio onenean**



*Lehen*



*Orain*

# BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 26 behea ezkerra
Te.: 943 74 15 52 / 606 43 11 20

**GEHIENEKO BERMEA**
**AKABERA ETA GARBIKETAN!**

*www.biokdekorazioa.com*
*biokdekorazioa@euskalnet.net*

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!




MAPFRE
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07
E-posta: patxiza@mapfre.com


SL Kensington Hizkuntza Zerbitzuak
IKASI INGELESA DIBERTITUZ benetan!!
IKASFUN!!!
UDAKO PROGRAMA
IKASI INGELESA DIBERTITUZ benetan!!
ZORIONAK IKASLE GUZTIOI
CAMBRIGEKO AZTERKETAN LORTUTAKO EMAITZENGATIK!!
ONDO PASA JAIAK!
Ingelesa ikasteko modurik dibertigarriena.
Programa trinkoa.
Dinamikoa eta praktikoa.
Ingelesez komunikatzen ikasiko duzu.
Talde eta lan-metodo ugari.
Adin taldeak: 6-8, 9-11, 12-14 urte.
Borroto pasealekua, 18 AIETE
20009 DONOSTIA
Tel: 943 31 33 77
E-posta: donosti@kensington-sl.es
San Inazio kalea, 4
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 02 36 - Faxa: 943 74 35 12
E-posta: elgoibar@kensington-sl.es


Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta
Ondo pasa 2008 ko San Bartolome jaiak!
www.imh.es
Euskadi

EIZAGUIRRE
OKINDEGIA
LANTEGI PROPIOA
Espezialistak artisau ogietan,
txapata ogietan, opiletan...
"Betiko ogia"
Ondo pasa jaiak!
San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88

IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.
Makina bereziak
Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L
Tel.: 943 74 44 66 • Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net


NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA
ZELETA
BARAZKIAK
EUSKAL BASERRI
Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu
• Landareen produkzioa
• Laborantza kontrola
• Eskuz eginiko aukeraketa
• Banaketa
• Bertako produktuetan erantzunik gertukoena
JAIAK ONDO PASA!
ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com


EL GAUTXO
Txiki Egunerako menua:
• Entsalada
• Oilaskoa papatekin
• Tarta izozkiarekin
• Kafea
20 €
(Etxeko ardoa barne)
bokatak
entsaladak
pizzak
gozoak
Jai zoriontsuak guztiei!
Errosario, 31 • ELGOIBAR • Tel.: 943 53 17 71

# Sua, deabruak eta magia

Ohiko suzko erroberen partez, su ikuskizun bereziak izango dira aurten jaietan

Su ikuskizunak dira aurtengo egitarauan aurkituko ditugun berrikuntzetako batzuk. Ohiko suzko erroberen partez, San Bartolome eta Jubilatuen egunean ikuskizun bereziak izango ditugu.

## Sua eta magia San Bartolome gauean

Astondoa pirotekniak eskainita, San Bartolome parrokia izango da abuztuaren 24 gaueko izarrik distiratsuena. Suzko efektuak eta argiztapen bereziak erabiliko dituzte parrokiaren fatxada kolorez janzteko. Festarako jantziko da, beraz, parrokia herriko zaindariaren gauean. Musika jarriko dute ikuskizuna biltzeko, eta gau giro harmonikoa sortuko da Plaza Handian. Gaueko 23:00etan hasiko da ekitaldia. Ondoren, gauari magia kutsua emateko Iñigo magoaren ikuskizuna izango da Plaza Handian.

## Deabruak kalean zehar

Jubilatuen egunean ere, gauak kolore berezia izango du. Deabru Beltzak taldeak *Les Tambours de Feu* ikuskizuna eskainiko du, kaleko giroa pizteko. Danborrak sutan jarriko dituzte. Aker, akelarreko deabrua, ibiliko da herriko kaleetan zehar bere perkusionisten lagun taldearekin. Zuzeneko musika, piroteknia eta izugarrizko efektu bereziz betetako ikuskizuna eskainiko dute. Gaueko 22:30etik aurrera egingo dugu topo eurekin kalean zehar.

Deabru Beltzak taldea 1996an sortu zuten Euskal Herriko hainbat antzerki taldetan ibilitako aktore batzuek, eta ordutik, 900 emanaldi baino gehiago eskaini dituzte. Euskal Herrian eta munduan zehar ibilitako talde hori, abuztuaren 27an etorriko da Elgoibarrera.



*Les Tambours de Feu*





*Astondoa piroteknia*










# Norberaren buruaren jabe eta aske izateko eskatu die elgoibartarrei Madalako Jai Batzordeak

Herri giroko egitarau partehartzaile eta erreibindikatiboa antolatu dute Gune Askean

Herri giroan jai partehartzaile eta erreibindikatiboa antolatu du Madalako Jai Batzordeak, "Parte hartu, aldarrikau eta gozau! Izan aske, izan zeu!" lemapean. Izan ere, norberaren buruaren jabe eta aske izateko eskatu die batzordeak herritarrei.

"Normalean jaiak askatasun irudi batekin lotzen ditugu, baina bakoitzak gogoeta egitea nahi genuke", dio batzordeak idatzi batean. Askotan lagunarteak eta jai giroko gehiegikeriek "ardikerietara" eramaten gaituzte, batzordeko kideen iritziz. "Noiz eta zenbat edaten (erretzen, esnifatzen edo jaten) dugun, non eta norekin ligatu edo ligatzen saia gaitezkeen, noiz etxeratu behar dugun, zenbat gastatu behar dugun... aurretik ezarritako mugen esku gelditzen da askotan. Beraz, jaietan ere izan aske, izan zeu!", aldarrikatu dute.

Jarrera homofobo eta sexisten inguruko aipamen berezia egin dute gainera: "Gune askean ez dugu horrelako jarrerarik onartuko, inola ere. Beraz, erasotzaile, *baboso* eta *babosak* jakizue ez zaretela gune askean ongi etorriak".



Aurten ere txosnetan edalontzi berrerabilgarriak izango dira. "Ez gaude prest gure parrandak amalurraren bizkar egiteko", adierazi dute. Ahalegina txikia izanik, askoz zabor gutxiago pilatzen dela nabarmendu dute. Horrexegatik apustu hori egiteko eskatu diote jendeari.

## Egitaraua eta aldarrikapena

Barixakuan Gaztetxearen bigarren urteurrenarekin hasiko da egitaraua. Hala ere, gune askeko jaien hasiera zapatuan izango da, 18:00etan, urtero bezala. Kili-kolo antzerki taldearen eta Txan magoaren ikuskizunek girotuko dute arratsaldea.

Horrez gain, denetik egongo da: era askotako musika, herri bazkariak, patata-tortila txapelketa, jolasak, karaokea, bertsolariak, trikitilariak…, eta aldarrikapenak: "Gurean falta zaizkigunei eta jaietan gurekin egon ezingo diren guztiei besarkada bat, bereziki larri gaixo den Mikel Ibañezi. Era berean, ongietorria Fernan eta Mendiri. Ea jaiak bukatu orduko beste lagun bat lapurtzen diogun espainiar eta frantses gobernuen espetxe politika krudel eta hiltzaileari!", opa dute.




### Madalako proiektuarekin, kezkatuta

Madala inguruaren berrikuntza lanak direla-eta, kezka azaldu du jai batzordeak. Izan ere, alkatearekin biltzeko eskatu zuen, eta ez du erantzunik jaso. Madala inguruak aukera handiak eskaintzen dituela uste dute. "Guk uste dugu presarik gabe, eztabaida zabala bultzatu behar dela gune hori luzerako definitzeko", azaldu dute. "Benetako estalpea" behar dela esan dute eta ekarpenak egiteko prest daudela. Azken batean, "parkea ez mugatzea proposatzen dugu. Hesiak kentzeko apustua egiten dutela diote eta gero gunea guztiz hesitzen dute", batzordearen arabera.



## GUNE ASKATUKO EGITARAUA

**22 BARIXAKUA**
22:00 Kontzertua
Gaztetxearen bigarren urteurrena: Destroi (Zumaia), Reprexion (Zumaia) eta beste bi talde gehiago (konfirmatzeko).

**23 ZAPATUA**
18:00 Jaien Hasiera
Ondoren, antzerkia
*Patetikkabareta* eskainiko du Kili-Kolo taldeak (Eibar-Soraluze).
20:00 Magia ikuskizuna
Txan Magoa.

**24 DOMEKA**
23:00 Kontzertua
The Fugitives Cardiff (bluesa) + Morau eta Agotak.

**25 ASTELEHENA**
15:00 Herri bazkaria
Preso eta iheslarien aldeko herri bazkaria.
Arratsaldean eta gauean, dantzaldia
Trikizio taldearen musika.

**29 BARIXAKUA**
11:00 Patata-tortila lehiaketa
14:00 Herri bazkaria
Ondoren, jolasak
20:00 Kontzentrazioa
Lema: "Larriki gaixo eta kondena betea duten presoak, etxera. Mikel Ibañez askatu!".
00:00 Karaokea
Izen ematea eta abesti aukeraketa bertan.

**30 ZAPATUA**
19:00 Triki poteoa
Hamaika bertute eta Baltzola anaiekin. Bertsolariak: Mantxi, Iñigo Izagirre, Xamoa eta Andoni Otamendi.
Iluntzean, manifestazioa
23:00-02:00 Musika
Haritz Sound System eta Zigor DZ arituko dira musika jartzen.



Alboan inmobiliaria
Ondo pasa jaiak!
EZCARAY

• 2 eta logela bateko apartamentuak
• 2 logelako duplex-ak
LA MANGA (Murtzia) POLARIS WORLD

Errosario, 12 - Tel.: 943 74 06 73 / 656 79 71 69 - E-posta: alboaninmobiliaria@euskalnet.net

# MIKEL CORNEJO



Egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketaren irabazlea

**Salbea bukatutakoan, egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketaren saria jasoko du Mikel Cornejok hirugarren aldiz. Txiki Egunaren bizipoza agertu du silueta beltzarekin eta ardo gorriaren zipriztinekin. Aspaldiko partez ez du lanik egin beharko jaietan, eta horregatik izango dira bereziak aurtengoak.**

## "Polita izango litzateke kartela herrian zabalduta ikustea"

Krisi sasoian gaude. Zer egingo duzu 600 eurorekin?

Krisia ez dut gehiegi igartzen. Gurasoekin bizi naiz oraindik. Ez dut hipotekarik, baina ez dakit noiz bidaliko nauten etxetik.

Ondo dago 600 euroko saria. Beste herri askotan ez dute hainbeste dirurekin saritzen...

Ez, itxura denez, beste herrietan sariak txikiagoak dira, baina kartela zabaltzen dute herrian. Polita izango litzateke kartela herrian zabalduta ikustea. Esku programan ikustea ondo dago, baina…

Zuk jarri ditzakezu herrian…

Lagun batek Eibarren saria txikiagoa zela esan zidan, baina kartela zabaldu egiten dute. Saritik kenduko dute inprentan gastatzen duten dirua.

Aurkeztu zaren sariketa guztietan irabazi duzu?

Aurrekoren batera ere aurkeztu izan naiz, baina kanpoan bizi nintzenez, ez zen gauza bera. Orain dela sei urte aurkeztu nuen lehenengo kartela, eta azken hiru urteetan irabazi egin dut.

Zenbat denboran egiten da kartel irabazle bat?

Urtetik urtera kartel desberdinak egiten saiatzen naiz, batez ere epaimahaikideak ez konturatzeko. Normalean epearen zain egoten naiz, azken momentuan presiopean egiteko. Elementu askorik ere ez dago jai bakoitzean: zezenak, Txiki Eguneko ardoa, sua…

Zuretzat ere Txiki Eguna egunik bereziena da?

Bai, denontzat da egun bereziena. Mundu guztiak gozatzen du eta jende guztiak parte hartzen du, eguraldi txarra tokatzen ez bada. Eromena da.

Aurten jaiak inoiz ez bezala bizi izango dituzu?

Bai, aurrekoetan lanean egon naizelako. Ez dakit zenbat lagun bilduko garen, batzuk umeak dituzte-eta.

Beste herrietako kartel lehiaketa batzuetara aurkezteko asmorik?

Bai, zerrenda bat hartu eta aztertzeko asmoa dut. Baina bertako jaiak ezagutu beharko nituzke. Ermuko jaietako giroa behar bezala ezagutzen ez dudanez, bertako jendearekin hitz egin beharko nuke.



# ILSek

Madalako etxe berrietan

## akademia berria zabaltzen du

**2008/2009 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKIA**

**HAURRAK ETA GAZTEAK INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA**

- HAURRAK 4 urtetik aurrera
- GAZTEAK 12 urtetik aurrera

- Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.
- Cambridge Azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE.

ILS

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

943 744 040

www.ils.es

IMHn gaude

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES




# Gabi jatetxea




## Jaietako menua

***APERITIBOAK***

- Chip begetalak ali-oliarekin.

***LEHENENGO PLATERA***

- Foie-a, bioleta lore-ostoen konfiturarekin eta lima hautsarekin.
- Bakailao entsalada epela, piper gorriekin.
- Itsas trikua.

***BIGARREN PLATERA*** (aukeratzeko)

- Urraburua (dorada) plantxan, onddoen ozpin-oliotan.
- Legatza txirlekin saltsa berdean, Parmesano-Reggiano erara.
- Txahal-azpizuna, idiazabal erara.
- Erbi gisatua.

***POSTREA*** (aukeratzeko)

- Sasoiko frutak, yogur aparrarekin eta mango kurruskariarekin.
- Etxeko postreen aukeraketa.

***PREZIOA:*** **35 euro + BEZ** (edariak ez daude barne).

**Ez galdu San Bartolomeetarako prestatu dugun menua!**

Nafarroa enparantza • Tel.: 618 259 339

# Elgoibar
# Residencial Géminis

Hobeto bizi!





**Etxebizitza**
**berri eta esklusiboak**
garaje eta trastelekuekin
**266.000** eurotik.

2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
**Trenbide Kalea 21, bajo• 20870 Elgoibar**
**943 74 80 92**
**www.grupogsi.com**

Gsi
(Ongizate eremuak)

Orain dela 25 urte ibaiak gainezka egin zuen

# UFALAK JAIETAN




*Deba ibaiak gainezka egin zuen eguerdiko zaparradarekin eta Elgoibarko hainbat kale urpean gelditu ziren.*

**Urak zapuztu egin zituen San Bartolome jaiak orain dela 25 urte. 1983ko abuztuaren 26an, Deba ibaiak gainezka egin eta ufal ikaragarriak izan ziren, batez ere alde zaharrean, Madala inguruan eta Lerun eta San Pedro inguruan. Elgoibarren inor hil ez bazen ere, ezbeharra beldurgarria izan zen: ura indarrez leku guztietatik zehar, 1.200 milioi pezetako galerak, denda eta tabernak hondatuta, 24 familia etxerik gabe… Orduango irudiak betiko gelditu dira andre-gizonen memorian gordeta. BARRENek han-hemenka batu ditu argazkiak. Oraindik oilo-larrua jartzen dute jaien bizipoza bertan behera laga zuten ufalen erretratuek. Eskerrak argazkiak laga dizkiguten guztiei: Azkueri eta Jesus Mari Juaristi "Txabola"-ri.**

Eguraldi ezegonkorra iragarrita egon arren, euria gogotik bota zuen 1983ko abuztuaren 26ko goiz eta eguerdian. Deba Ibaiak gainezka egin zuen Madala inguruan. Ez zen lehen aldia: urtean hiruzpalau bider izaten ziren ufalak han.

Jakinminez, jende askok San Frantzisko kalearen muturrera jo zuen. Baina lokatz koloreko Deba ibaiak gora eta gora egiten segitu zuen, harik eta eguerdiko zaparradaren ostean alde zaharra alderik alde hartu arte.

## Kalte handiak

Orain dela 25 urteko ufaletan ez zen inor hil Elgoibarren. Hala ere, sekulako kalteak izan ziren. 24 familia etxerik gabe gelditu ziren eta 1.200 milioi pezetako galerak zenbatu zituzten. Elgoibar hondamen-eremu izendatu zuten.

Gipuzkoako eta, batez ere, Bizkaiko hainbat herritan egoera negargarriak bizi izan zituzten. Bilbon, esaterako, jaien azken txanpan zirela, Nerbioi ibaiak gainezka egin zuen. Guztira, 34 lagun hil eta beste bost desagertu ziren 1983ko ufal horietan. EAEn 200.000 milioi pezetako galerak izan ziren. Leku batzuetan, metro koadroko 600 litro ur bota zuen egun bakarrean.

## Bost urte geroago, tragedia

Zoritxarrez, bost urte geroago, ufalen eraginez ere, beste hondamendi bat gertatu zen, elgoibartarrentzat aurrekoa baino larriagoa: 1988ko uztailaren 19an gainezka egin zuen Deba ibaiak eta zazpi lagun hil ziren herrian, batzuk automobila ateratzeko ahaleginetan.

Ibaiak San Pedro kalea hartu zuen.



Etxe honen bigarren pisuraino igo zen uraren maila.



Santa Ana kalean autoak urpean gelditu ziren.





San Frantzisko kalea.
AZKUE





Ibai inguruko kaleetan izan ziren ufalak.



Guztira, 24 familia etxerik gabe gelditu ziren.

Madala inguruan kalte handiak izan ziren.





Ufalaren ostean, zikinkeria edonon.



Tiroriro zena: ibaiaren maila horman gelditu zen grabatuta.





Nafarroa plaza, urpean. AZKUE



Josu Juaristi Madalan, hondamenaren ostean.



Egoera bere onera ekartzeko ahalegina egin zuen herriak bat eginik, gero. AZKUE

## Erretratu zaharra

Juanito Gorostizak ekarri dizkigu Txiki eguneko erretratu zahar hauek.

### 1948 ➔



Malape koadrilakoak dira argazkian azaltzen direnak: **Goian:** Bizente Etxabe (†), Jose Mari Mendikute, Sabino Ayarza (†), Pako Zubiaurre, Pako Leiaristi ( ), Ladis Zabaleta (†), Jose Luis Arrese. **Bigarren ilaran:** Bittor Arrieta, Antonio Armendia (†), Celestino Larrea (†). **Hirugarren ilaran:** Jose Mari Mujika (†), Andres Juaristi, Jose Izagirre, Jesus Arrieta, Benito Iruretagoiena (†). **Behean:** Benito Bastida, Pablo Alvarez eta Jesus Galarraga.



### ◄ 1966

Oraingo honetan zuri-gorriz jantzita ageri zaizkigu gaztetxoak. Gerriko eta zapi gorria jantzi, alpargata zuri-gorriak oinetan eta irribarrea ahoan.

Etxetik garbi irten ziren, baina seguru ondo zikinduta itzuli zirela etxera. Gogora ditzagun:

**Ezkerretik eskumara:** Migel Anjel Lejarazu, Anton Izagirre, Jose Inazio Izagirre, Iñaki Sanchez, Arantza Sanchez (†) eta Antoñito Carrizo (†) (agentinarra).






*Ondo pasa San Bartolome jaiak!*







# TOLETXE Taberna

PEDRO MUGURUZA 8, BEHEA • ELGOIBAR • TEL.: 943 74 10 12



**IZAN ZIRELAKO GARA**
**GARELAKO IZANGO DIRA**
**JAIETAN ERE EUSKALDUN**

*EUZKO GAZTEDI*

Elgoibarko **EGI**




PNEUMAX

KALITATEA ZIURTATZEKO SQS sistema
ISO 9001/EN 29001
Erreg Zk.: 10677-01

## ENPRESA

**PNEUMAX S.A.** enpresan, hau da, Italiako **PNEUMAX S.P.A.**k Espainian duen filialean, 25 urte baino gehiagoko esperientzia daukagu automatizazio pneumatikoaren alorrean.
Gure Elgoibarko instalazioek 1.000 m²-ko azalera dute estrategikoki kokatuta dagoen industri-poligonoan. Zilindroak muntatzeko eta materiala banatzeko dauzkagun metodo aurreratuekin, gure bezeroei zerbitzu azkarra garantizatzen diegu.



## EGITURA

**PNEUMAX S.P.A.** ren egoitza nagusia Lurano-n (Bergamo-Italia) dago, 13.000 m²-ko azalera dauka, goi-mailako koalifikazioa duten langileak ditu, eta etengabe ari da hedatzen. Bost filial ditu Europan eta Ekialdean, hiru Italian eta ehun kontzesionario esklusibista baino gehiago munduan. Era honetan garantizatzen da asistentzia eta produktuen distribuzioa mundu osoan.



*Jai zoriontsuak herritar guztioi!*

## PRODUKTUAK

Gure produktu-gama zabalaren bidez erraz aurkituko duzu automatizazio-behar bakoitzerako produktu egokia. Izan ere, gure produktuak SQSk Ziurtatutako Kalitate Sistemaren bidez (Kalitatearen Ziurtapenerako Erakunde Suitzarra) proiektatu, garatu, fabrikatu, kontrolatu eta merkaturatzen dira, ISO 90001/EM 29001rekin, hain zuzen ere.

- Airearen tratamendurako FRL taldea.
- Mikrobalbulak
- Balbulak eta elektrobalbulak
- Balbula osagarriak eta osagaiak
- Balbulak eta elektrobalbulak hutserako
- ISO 5599/1 banatzaileak
- ISO 6432 mikrozilindroak
- ISO 6432 - VDMA 24562 zilindroak
- Biraketa-unitateak
- Ibilbide laburreko zilindro konpaktoak
- Zurtoinik gabeko zilindroak
- Abiadura-erregulatzaile hidraulikoak
- Gida-unitate linealak
- Txokerako WEFORMA amortiguadoreak

PNEUMAX S.A.
Olaso, 54 • **Tel:** 943 74 41 44-74
**Faxa:** 943 74 40 76
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



# San Bartolome jai zoriontsuak!

ELGOIBARKO UDALA

Elgoibarko Udalaren izenean